Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

**Nekazaritza Saila**
**Departamento de Agricultura**.

Mendi Zerbitzua.
Servicio de Montes.
Nº Expte/Esp.Zk : 160-23

**AYUNTAMIENTO ESKORIATZA**
**Fernando Eskoriatza plaza 1**
**20540 Eskoriatza**
**(Gipuzkoa)**

Nekazaritza Saileko Foru diputatua, 2023ko maiatzaren 11 ko, 158 Foru Aginduaren bitartez, honakoa xedatu du:

El Diputado Foral de Agricultura, mediante Orden Foral 158 de 11 de mayo de 2023, ha dispuesto:

“Mendi Zerbitzuak adierazi du Elgeako bizilagunek jakinarazi zutela identifikatu gabeko aziendak zeudela Elgeako mendilerroko onura publikoko mendietan. Joan den apirilaren 28an, arraza eta sexu desberdinetako bederatzi behi abere harrapatu ziren. Abereak menditik atera eta Otazako abeltzaintza instalazio batean utzi ziren, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren zaintzapean.

Abere horietatik zazpik identifikaziorik ez dutela egiaztatu ondoren, eta haien jabe legitimoek erreklamatu ahal izateko, argitara eman behar da identifikatu gabeko animalien deskribapena eta, jabeek erreklamatzen ez badituzte, jabegabeko abelburutzat jo behar dira eta indarrean dagoen legeriak agintzen duenaren arabera jokatu.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenen indarrez, eta Arabako Foru Aldundiko Sailak 2019-2023 Legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

**“**El Servicio de Montes informa que por parte de vecinos de Elgea se comunicó la presencia de ganado no identificado en los montes de Utilidad Pública de la Sierra de Elgea, procediéndose, el pasado 28 de abril, a la captura de nueve reses bovinas de diferentes razas y sexos. Las reses fueron retiradas del monte y depositadas en una instalación ganadera de Otaza, bajo la tutela de la Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava.

Una vez comprobado que siete de los animales carecen de identificación, con el fin de que puedan ser reclamar sus legítimos propietarios, procede publicar la descripción de los animales no identificados y, si no fueran reclamados por sus dueños, ser declaradas reses mostrencas y proceder según disponga la legislación vigente.

Vistos los informes preceptivos, en virtud de las competencias atribuidas por el Decreto Foral 14/2016, del Consejo de Diputados de 9 de febrero, que aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, por aplicación de los Dispongo noveno del Decreto Foral 324/2019, del Diputado General, de 5 julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava para la legislatura 2019-2023,

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Elgeako mendilerroko onura publikoko mendietan bildutako abelburu identifikatu gabeak administratzeko prozedura izapidetzea, 160/23 espediente zenbakiarekin.

Bigarrena.- Bildutako abereen deskribapena argitaratzea. Hona hemen:

- 10 urte inguruko behi heldua, ilehoria eta adar moztuak dituena, 15 eguneko kumearekin.
- Behi heldua, ilehoria eta adar moztuak dituena.
- Urtebete inguruko txekorra, ilehoria.
- Bi urte inguruko txahala, ilehoria eta adarduna.
- Bi urte inguruko txahala, ilehoria.
- Bi urte inguruko txahala, ilehoria.

Hirugarrena.- Azaldutako animaliak Otazako (Barrundia) abeltzaintza instalazio batean daude, Arabako Foru Aldundiaren zaintzapean, haien jabea dela egiaztatzen duenaren esku, eragindako gastuak eta dagokion zehapena ordaindu eta gero.

Laugarrena.- Jakinaraztea ezen foru agindu hau argitaratu eta hogei eguneko epean jabeek erreklamatzen ez badituzte, animaliak jabegabeko abelburutzat joko direla, dagozkien lege ondorioetarako.

Bosgarrena. Foru agindu hau ALHAO argitaratzea eta Arabako Lurralde Historikoko Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Burgelu, Barrundia eta Donemiliagako Udalei eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Aretxabaleta eta Oñatiko udalei jakinaraztea, iragarki tauletan jar dezaten.

## DISPONGO

Primero:- Instruir, con el número de expediente 160/23, el procedimiento de administración de las reses no identificadas recogidas en los montes de Utilidad Pública de la Sierra de Elgea.

Segundo.- Publicar la descripción de los animales recogidos, cuyas reseñas se indican a continuación:

- Vaca adulta de aproximadamente 10 años, de capa rubia y cuernos cortados, acompañada de su cría de 15 días.
- Vaca adulta de capa rubia y cuernos cortados.
- Novillo de aproximadamente un año de edad de capa rubia.
- Novilla de aproximadamente dos años de edad de capa rubia y con cuernos.
- Novilla de dos años aproximadamente de capa rubia.
- Novilla de dos años aproximadamente de capa rubia.

Tercero.- Informar que los animales reseñados se encuentran depositados en una instalación ganadera de Otaza (Barrundia), bajo la tutela de la Diputación Foral de Álava, a disposición de quien acredite ser su dueño, previo pago de los gastos ocasionados y la correspondiente sanción.

Cuarto.- Comunicar que, si pasados veinte días desde la publicación de la presente orden foral no fueran reclamados por sus dueños, los animales serán declarados reses mostrencas, a los efectos legales que correspondan.

Quinto. Publicar la presente orden foral en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y notificarla, para su inserción en los tablones de anuncios, a los ayuntamientos de Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Elburgo, Barrundia y San Millán del Territorio Histórico de Álava, y Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Aretxabaleta y Oñati, del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Seigarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente hau ebazteko ezarritako epea 3 hilabetekoa da, eta epe hori esanbidezko ebazpenik gabe igarotzen bada, iraungi egingo da.

Sexto. Conforme a lo dispuesto en artículo 21 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de la Administraciones Públicas, el plazo establecido para la resolución de este expediente es de 3 meses, transcurrido el cual sin que haya resolución expresa, se producirá la caducidad.

ALHAOn argitaratu zen eguna: 2023ko maiatzaren 19a

Fecha publicación BOTHA: 19 de mayo 2023

**Luis Javier Román de Lara**
Mendi Zerbitzuaren Burua
Jefe del Servicio de Montes

https://www.araba.eus/botha/Boletines/2023/058/2023_058_01462_E.pdf